

Alkatearen probidentzia

Oñatiko Udaleko idazkariaren lan karga ikusita, bi postuen funtzioak egiten ditu, postu horietako bat betetzeko beste pertsona ba kontratatzea erabaki da. Lan poltsa agortuta edo ez dagoenez, Lanbidera jotzea erabaki da.

190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena, bere **58. Artikuluak** dio:

1- Bitartekoen hautaketa egingo da gai horri buruz administrazio bakoitzak ezartzen dituen arauen arabera. Hautatzeko prozedurek, berdintasun, ageritasun, meritu eta gaitasun printzipioak bermatzen dituzten irizpideak izango dituzte oinarri, aldi berean irizpideok prozedura horiek ahalik eta zaluena izatea bideratzen dutela.

2- Berariazko araurik ez badago, hautaketa oro har egingo da funtzionario izateko edo aldi baterako enpleguaren poltsak eratzeko, izandako hautaketa prozesurik gainditu dutenen artean.

3- Giza-baliabideen kudeaketa eraginkorrari eragozten ez dion heinean, euskal herri administrazioek elkarri elkarlana eskainiko diote, bitarteko funtzionarioak izendatzeko xedez beren lan-poltsetan sarturiko langileak maileguan utziz.

4- Izangaiak hartzeko premiarik edo zailtasunik baldin badago, salbuespen bezala eta justifikaturiko memoria bitarteko delarik, enplegu zerbitzu publikoez baliatzeko aukera egongo da.

Halaber, abenduaren 30eko 11/2020 Legeak, 2022 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 19. artikuluan, honako hau xedatzen du: "Ezin izango da aldi baterako langilerik kontratatu, ezta aldi baterako estatutupeko langilerik eta bitarteko funtzionarioen izendapenik egin ere, salbuespenezko kasuetan izan ezik, eta premiazko eta atzeraezinazko beharrianak betetzeko."

Oñatiko Udaleko AOT la poltsa agortuta dago. Bestalde, inguruko udaletan galdetuta, ez dago lan poltsarik.

Kontratazio bat egitea beharrezkoa da, zerbitzua ondo emateko. Horregatik, komenigarria eta beharrezkoa da enplegu zerbitzu publikoetatik hautagai bat izendatzea.

Hori guztia kontuan izanda, HONAKOA XEDATZEN DUT:

1.- Aparteko inguruabarrak gertatzen direlako eta premia larria dagoelako, AOT postua, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena, 10.1.b artikulua araber, ordezkaturako langilearen absentziak irauten duen bitartean, lanpostua gordetzeko eskubidearekin (2720/1998 Errege Dekretua, 4. Artikuluan), enplegu Zerbitzu Publikoak jakinarazitako lan-kategoria horretako hautagaiak aukeratuz. Hileko soldata gordina ordezkatzeko duen langilearen lanpostukoa izango da, parte proportzionalean.

2.- Honako hau eskatzen da:

Idazkaritzako AOT (A1), Lanposturaren titularra lanera itzuli arte:

Jardunaldia: %100

Hileko soldata gordina: idazkaritzako AOTari dagokiona

3.- Hautagaiak hautatzeko, balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

3.1.- Beharrezko prestakuntza

- Titulazioa: Zuzenbidean, Politika Zientzietan, Enpresagintzan edo Ekonomi zientzietan graduatua, lizentziatua, edo parekoa.
- Hizkuntza-eskakizuna: 4.

3.2.- Prestakuntza osagarria (10 puntu)

- Unibertsitateko masterreko eta/edo doktoradutza titulazioa, edo baliokidea (puntu 1, gehienez 3 puntu)
- Lanpostuarekin zerikusia duten ikastaroak (0,25 puntu ikastaro ordu bakoitzeko, gehienez 7 puntu)

3.3.- Lanbide-esperientzia (gehienez 30 puntu)

- 0,40 puntu Herri Administrazioan eskainitako hilabete oso bakoitzeko, lortu nahi den lanpostuaren baliokide diren eginkizunetan (A1 sailkapen taldea), lan zerbitzuan jartzen duenaren arabera. Administrazioa toki administrazioa bada, 0,05 puntu gehituko dira hilabete oso bakoitzeko.
- 0,30 puntu Herri Administrazioan eskainitako hilabete oso bakoitzeko, peoi lanpostuaren edo baliokidearen eginkizunetan (A1 sailkapen taldea), lan zerbitzuan jartzen duenaren arabera. Administrazioa toki administrazioa bada, 0,05 puntu gehituko dira hilabete oso bakoitzeko.
- 0,20 puntu sektore pribatuan eskainitako zerbitzuen hilabete oso bakoitzeko, lortu nahi den lanpostuaren baliokide diren eginkizunetan. Kontratua aurkeztu beharko da.

** Oñatiko Udalak esperientzia eta formazioa ziurtatzeko eskatu dezake.*

4. Epaimahai kideak:

Idazkaria

GGBB eta Antolakuntzako AOT

Oñatin, sinadura elektronikoa agertzen den datan
Alkatea

Sin.: Izaro Elorza Arregui Andrea.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Alkate probidentzia AOT Lanbide

CSV/EKS:

SINAa2301286-2ad0-4c58-8b67-e4ed9a67730d